

Utzi egin dute protesta gose greban ziren EHuko irakasleek

G. AGIRRE / BILBO

Antton Azkargorta EHutik kaleratutako irakasleak eta Nikolas Xamardo titulatuak utzi egin zuten atzo gose greba osasun arazoak zirela medio. Hamarna kilo galdu dituzten bi irakasleek hemezortzi egun egin dituzte gose greban Informazio Zientzien Fakultateko bulegoetan.

Medikuaren aginduz, bi irakasleek gose greba utzi be-

har izan zuten atzo osasun arazoak larritu egin zirelako. Azkargortak azetona maila oso altua zeukan eta Xamardok odola galtzen zuen gerruan. Bi irakasle hauek joan den irailaren 7an hasi zuten gose greba 700 ikaslek kaleratutako irakasleekin ekainean egin zituzten azterketak onartzea exigitzeko.

Kazetaritza Sailak Unibertsitateko agintarien «erabateko axolagabekeria» salatu du.

Euskara ikasteko dei egin zuten AEK-ko ikasleek atzo Donostian

Matrikulatzeko epea hilabete honen bukaeran amaituko da

Nati, Mari Karmen, Feli, Mari Jose, Juan Jose, Iñaki, Eugenio, Nerea, Edorta, Patxi, Anjelita eta Edurne AEK-ko ikasleak azaldu ziren prentsaurrekora atzo Donostian. Mezua bakarra: «Euskara ikasi, matrikula zaitez AEKn». Matrikulatzeko epea hilabete honen bukaeran amaituko dela jakinarazi zuten.

HUR GOROSTIAGA / DONOSTIA

Hitza hartu zuen lehenengoa Mari Karmen Sanchez 28 urteko guraso eta Pasaiako transmisio kanpainako partaidea izan zen, bigarren urtez Pasai Antxoko barnetegian dagoen ikasleak. Sanchezek azaldutakoaren arabera, «nire alabarekin hitz egiteko hasi nintzen euskara ikasten, baina geroago arrazoi gehiago topatzen joan naiz. Guraso guztiei dei egin nahi nieke euskara ikasten has daitezen eta AEKn matrikula daitezen».

Ondoren Feli Vega Beraungo euskaltegi berriko 34 urteko emakumea aritu zen AEKn matrikulatzeko animatzeko eskatuz: «Iaz gure auzoa nahikoa erdalduna zela ikusirik, euskalduntze lanetan hastea erabaki genuen eta azkenean euskaltegia eratu genuen jendeak auzoan bertan ikas zezan euskara».

Iñaki Salvador Hernaniko ikasle eta piano jole ezagunak «euskara ikasten hasteko arrazoiak oso zabalak, intimoak zein publikoak» direla adierazi zuen. «Hasieran euskara ikasteko zure agendatik zer kendu ez dakizula ibiltzen zara, baina azkenean egiten diozu behar duen tartea. Ordainez, zure inguruan ondo sentitzea lortzen duzu. Ni musikaria izanik beti ibili ohi naiz atseginen zaidan melodia edo hobekien komunikatzeko musikaren bila».

Anjelita Zubiria 53 urteko



Pasai Donibaneko Xalabardo euskaltegi berria.

EDURNE KOCH

etxeko andre eta Tolosako Arramele euskaltegiko ikasleak, berriaz, «txikitatik ikasitako euskara hobetu nahia» azaldu zuen. «Ni euskaldun zaharra naiz eta uste dut denok beharko genukeela AEKtik pasatu geure euskara hobetzeko eta idazten eta irakurtzen ongi ikasteko. Jendeak jakin dezala ez dela hain zaila eta oso giro onean egoten garela».

Ikasleek hitz egin ondoan Aitziber Etxeberrira aritu zen Pasai Donibaneko Xalabardo euskaltegi berriaren izenean. «Donibaneko euskararen egoera ikusirik, euskaltegi berri baten premia sentitu genuen, kaleko giroa euskalduntzeko eta jendeak euskara herrian bertan ikasteko aukera izan zezan. Bide batez jendea

animatu nahiko genuke antzerako ekimenak bultzatzen». Donibaneko Xalabardo euskaltegiaren gain, Beraun eta Legazpin beste bana ireki dute aurretik.

Amaitzeko Juan Mari Mendiababal Gipuzkoako AEK-ko arduradunaren esanetan «gizartearen dagoen euskararen aldeko jarrera handia, konprometuz pertsonal bihurtu beharra dago, euskara ikastearen bidez. Horretarako matrikulatze kanpaina ari gara bultzatzen 'Euskaraz maite zaitut' lemarekin». AEK-k Gipuzkoako zenbait udal eta erakundeekin egindako proiektuak ere azaldu zituen Juan Mari Mendiababal arduradunak, guraso, haur, dendaria zein langileak euskalduntzea helburu dutenak.

2.000 haur eskolarik gabe

Bizkaian 2.000 eta 2.500 bitarte haur klaserik gabe daude, beren etxeetan, irakasle falta dela medio, probintzia honetako Ikasleen Gurasoen Elkarteak ordezkariek atzo salatu zuten. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua den Fernando Buesak ikasturtea normaltasunez hasi dela adierazi duen arren, Bizkaiko 70 ikastetxetan oraindik irakasleak falta dira. Horrez gain, zenbait ikastetxetara hizkuntz profil desegokiak bidali dituzte. Ikasle eta gurasoak Bizkaiko Hezkuntza Sailaren egoitzaren aurrean bildu ziren atzo egoera salatu eta lehenbailehen konpontzea aldarrikatzeko.

Tania & Mauro

ALAITU EZAZU BEGIRADA 2.550 Pta.

MENDIA OPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MultiOpticas

Andre Maria Plaza • Oribel, 33 (anbulatorio aurrean) GASTEIZ

Tania & Mauro betaurreko berriak MULTIOPTICA Sen azkena zure begiak modaz jatzeko. Beren diseinu erakargarri eta kalitatezkoak. Eta prezioa, harrigarria: 2.550 Pta.

Eta beti MENDIA OPTIKA ren garantiarekin. Zatoz eta zerorrek froga ezazu.

MENDIA OPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

Beti Zuri Begira

HEZKUNTZ TEORIA ETA HISTORIA SAILA

EUSKAL KULTURAREN BATZARREA

EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZERAKO DIPLOMA

- Euskaltegiaren diharduten irakasleei zuzenduta bereziki
- 28 kreditu (280 ordu) bi urtetan banaturik
- Hiru egoitza: Donostia, Bilbo eta Gasteiz
- Ikastaroaren hasiera: urriak 15. Bukaera: uztailak 23
- Informazioa eta matrikula: EHU-ko Hezkuntzaren Teoria eta Historia Sailaren Idazkaritza. Ibaeta (Donostia). Tlfnoa: (943) 31.06.00 (Leire)
- Matrikula epea: irailak 13tik 30ra